



26. alea
2004-otsaila

HEZKIDETZAN Pausoz pauso

Paso a paso
En la COEDUCACIÓN



2. eta 3. zikloak

ARAUAK

- Margotu sexu bakoitzari gizarteak egotzi egiten dizkien ezaugarriak, arauak, jarrerak...
- *Pinta las características, los comportamientos, las reglas... que impone la sociedad a cada sexo.*



Indartsua, gogorra...



Liraina, polita...

Kasu hauen atzean pertsona bat dago. **Zu ausartuko al zinake kasu bakoitza kontatzen duen pertsonari sexua jartzen? Zergatik ausartuko zinake edo ez?**

Detrás de estos casos hay una persona. ¿Te atreverías a ponerle sexo a cada persona que cuenta su caso? ¿Porqué te atreverías o porqué no?

Orrazkera kontuak betidanik gustatu zaizkit. Txiki txikitatik nere panpinekin orrazkera desberdinak probatu ditut eta gaur egun betidanik gustatu zaidan horretan egiten dut lan. Ileapaindegi batean hain zuzen ere. Oso gustoko dut nere lana eta nere ametsa egunen batean nerea izango den ileapaindegia zabaltzea da.



Hainbat gauza probatu dudan arren denbora mordoa pasa da benetan gustatzen zaidan hori aurkitzen. Neu ere txundituta nago nere buruarekin. Izan ere, sekula pentsatuko ez nukeen lanbide batean ari naiz lanean. Autobus gidari bezala hain justu ere. Oso pozik nago nere buruarekin eta kostata bada ere azkenean lortu dut beste askok lortu ez duten hori.



Asteburu honetan arropa erostera joango naiz. Ikaragarri gustatzen zait dendara sartu, hau probatu, hori ikusi, hura erosi... Nire armairua beteta egon arren, beti aurkitzen dut beste arropa batzurentzako lekua. Oraingo honetan bota batzuk erosteko asmoa daukat. Ea ba zorte pixka batekin gustokoak aurkitzen ditudan.



Futbolzale amorratua naiz. Ia astebururo partiduak ikustera joaten naiz eta nola ez taldeak animatzera. Dagoeneko hurrengo partidurako txartelak lortu ditut eta nere gorputzak egonezin ikaragarri bat sentitzen du jada. Ea ba astea azkar pasatzen den eta nere taldeak irabazten duen.



Ikerketa batzuek diotenez gero eta gehiago dira etxeko lanez arduratzen diren gizonezkoak.

Olentzeroren esanetan, Euskal Herriko mutil gehienek Play-Station eskatu dute FIFAko jolasarekin batera. Aldiz, neskatila gehienek BRATZ panpinak eta beraientzako osagarriak.

Inkesta batek dioenez, gero eta neska gehiago daude futbolzaletuak direnak.

Bartzelonako Ballet Akademia famatu batek dio: "Aurten gure Akademian izen-eman dutenen %72 mutilak dira"

Estetika datuek diotenez, gero eta gehiago arduratzen gara gure itxura zaintzen. Adibidez, 2003.urtean 789.050 euro gastatu ziren depilazio saioetan. Emakumezkoak 452.035 euro gastatu zituzten eta gizonezkoak 337.015 euro.

Estatu Batuetako II.Indar Lehiaketan emakume batek irabazi du, Nerea Indargehiena. Antolatzaileek diotenez, lehen aldia da emakumezko batek irabazten duela.

Ikusi nola gizartean era ez formalean jaso ditugun arauak alda daitezken!

Observe como las normas que en nuestra sociedad hemos recibido de manera informal, pueden ser cambiados.

Boletin honetan egunerokotasunean, konturatu ere egin gabe, erabiltzen eta bizitzen ditugun arauak bergogoratu, eta hauetaz erreflexio txiki bat egiteko saiakeratxoak egin dugu. Izan ere, zer dela eta daude arauak, zertarako, zeintzuk behar ditugu gure egunerokotasunean, zeintzuk dira bidegabeak...

Arauak gizartean daude. Batzuk guk geuk asmatuak gure elkarbizitzako interesen arabera eta beste batzuk inposatuak. Arauak, guztion artean elkarjarrita egin ditza-kegu. Arauak alda daitezke. Flexibilitateak, arauak izan behar duten ezaugarrieta-ko bat izan behar du. Arauak errespetatuak izan daitezen ezagutuak izan behar dira, ulertuak, barneratuak... Arauak gureak izango dira, hauen eraikuntzan, hauen mantenuan, eraldaketan eta zabalkuntzan, parte hartzen dugun heinean.

En este boletín hemos querido recordar y hacer una pequeña reflexión de esas normas que en la vida cotidiana utilizamos. La comprensión de el por qué de las normas, el para qué, cuales son las que necesitamos en la vida cotidiana, cuales son injustas...

Las normas existen en la sociedad. Algunas son impuestas y otras las creamos nosotras y nosotros según nuestros intereses y necesidades. Las normas podemos crearlas llegando al consenso entre todas y todos. Las normas pueden cambiar, la flexibilidad debe ser una característica de las normas. Las normas para que se respeten deben ser conocidas, entendidas, interiorizadas... Las normas son nuestras a medida en que podemos participar en su creación, en su mantenimiento, en su transformación y transmisión.

